AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

4057

AGINDUA, 2011ko uztailaren 21ekoa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 2007ko azaroaren 21eko eta 2008ko urtarrilaren 28ko Aginduen bitartez araututako lehiaketa espezifikoen harira Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak emandako 255/09, 242/09, 120/09, 699/09, 137/09, 156/09, 1221/09, 119/09, 1159/09 eta 1610/09 epaiak betearazteko den 2011ko maiatzaren 13ko Agindua aldatzen duena.

Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 2007ko azaroaren 21eko Aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomiadunetako karrerako funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostuak, I-A, I-B, II-A, II-B, II-C eta III-A berariazko osagarria dutenak, betetzeko lehiaketetarako oinarri orokorrak onartu zituen eta Balorazio Batzordearen osaera ezarri zuen.

Oinarri orokor horietako 8. oinarriak ezarritakoarekin bat etorriz, aipatutako batzordeko kideak izendatu zituen Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2011ko maiatzaren 13ko Aginduak; Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 2007ko azaroaren 21eko eta 2008ko urtarrilaren 28ko Aginduen bitartez araututako lehiaketa espezifikoen harira Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak emandako 255/09, 242/09, 120/09, 699/09, 137/09, 156/09, 1221/09, 119/09, 1159/09 eta 1610/09 epaiak betearazteko da 2011ko maiatzaren 13ko Agindua.

Horren haritik, Izendatutako kideetako bat eta argitaratutako eranskin bat aldatzeko beharra sortu da.

Horiek horrela, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 2007ko azaroaren 21eko eta 2008ko urtarrilaren 28ko Aginduen bitartez araututako lehiaketa espezifikoen harira Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak emandako 255/09, 242/09, 120/09, 699/09, 137/09, 156/09, 1221/09, 119/09, 1159/09 eta 1610/09 epaiak betearazteko deitutako lehiaketako Balorazio Batzordearen osaera aldatzea, eta ondorengo izendapena egitea, agindu hau argitaratzen den datatik aurrerako ondorioekin:

- Francisco Javier Arjonilla Arranzen ordez Juan Carlos Soto Pérez izendatzen da ordezko batzordekide.

Bigarrena.– Ezagupen berezituei dagozkien gakoen azalpenaren eranskina aldatzea, 578 kodea duen ezagupena sartzeko: 3 urteko esperientzia administrazio publikoetako barne-kontroleko organoen kontu-auditorian edo kontu-auditoreen erregistro ofizialean izena emanda egotea.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean; edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabeteko epean.

Bigarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 21a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.